



EUSKARA, IKASTETXETIK PLAZARA

Ipar Euskal Herrian, azken 13 urteetan, sail elebidunetako kopuruak %82z hazi dira. Gaur egun, ama eskolatik lizeora, 13.500 ikasle baino gehiagok euskaraz ikasten dute sail desberdinetan. Gure lurraldean, hein handi batean adin piramidearen zolatik eta eskolaren bitartez jokutzen da euskararen berreskuratzea.

Rol handi bat jokutzen badu ere, ezin zaio eskolari dena delegatu. Euskarak plazan, familian, aisialdian eta eguneroko bizian ere bizi behar du, haurraren jabetzea eta motibazioa azkartzeko. Hartarako, gurasoen inplikazioa eta aisialdi eskaintzaren egituraketa egokia beharrezkoak dira.

Testuinguru horretan, nola sustatu euskararen eskolaz kanpoko erabilera? Zer egin dezakete hobeki gurasoek? Nola ezagutarazi euskarazko aktibitate eskaintza?

Gogoeta eta trukaketaz haratago, egitasmo konkretuak marrazteko saioak izanen dira. Irailean hasiko da Mintzalasaien kariatara eta azaroan segituko Baxe Nafarroko euskararen urtarorearen kariatara. Bien artean, Eusko Ikaskuntzak solasaldiak bilduko ditu idazki batean.

PUBLIKOA:

- Euskara teknikariak
- Euskgintzako langileak
- Guraso elkarteak
- Euskaltzaleak
- Aisialdi eta irakaskuntzako profesionalak



HELBURUAK:

- Egiten dena ezagutu
- Diskurtso egoki baterako oinarriak pausatu
- Etorkizuneko dispositiboetarako oinarriak pausatu.



EDUKIA:

Gurasoen motibazioak, bakoitzaren rola, eraikitzeko diskurtsoak, existitzen diren tresnak, lurraldearen beharrak, marraztu beharreko estrategiak...

MINTZALASAI – EUSKARAREN URTAROA – EUSKO IKASKUNTZA

Bigarren saioa

2018/11/14a, asteazkena ■ BIDARRAI ■ Herriko gela

9:00 **Harrera kafea. Ongi etorria.**

9:15 SARRERA HITZALDIA | **Aitzineko lan saioaren bilduma.**

IBAN LARRANDABURU | EUSKO IKASKUNTZA

HELENE CHARRITTON | ERABIL KOLEKTIBOA

9:30 LEHEN DINAMIKA | **Aisialdi eskaintza:** erronkak eta problematikak.

GOGOETA TALDE TXIKIETAN

10:30 **PAUSA**

11:00 MINTZALDIA | **Eragileen sarea osatzen:** haur eta nerabeen hizkuntza-sozializazioan eragiteko oinarriak eta adibideak

IÑAKI EIZMENDI ARSUAGA | GIZARTE HEZITZAILEA. EBETE HIZKUNTZA-ZERBITZUEN SORTZAILEA ETA KIDEA

11:30 BIGARREN DINAMIKA | **Estrategia definitzen:** zer behar du gure lurraldeak, euskararen eskolaz kanpoko erabilera azkartzeko?

GOGOETA TALDE TXIKIETAN

12:30 BATERATZEA | **Talde lanen emaitza. Konklusioa.**

IBAN LARRANDABURU - HELENE CHARRITTON - JOANA ETXART

12:45 **Luntxa.**

Moderatzailea: **JOANA ETXART**